

ORDEZKO entzako informazioa

EPE 2010-11

2010-2011 ikasturtean 1.515 lanpostu aterako dira EPera, baina 500 lanpostu-huts begetatibo aurreztuko dituzte

2009ko azaroan, Mahai Orokorreko negoziazioan ELAk honela behartuta, 2010 eta 2012. urteen artean hezkuntzarako 3.600 lanpostu Enplegu Publiko Eskaintzara ateratzeko konpromisoa hartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Honekin batera, erretiroak, heriotzak edota ezintasunak zirela eta hutsik geratzen diren plazak betetzeko beste 1.500 lanpostu (500 urteko) ateratzeko konpromisoa ere hitzartu zen. Honela, urte askotan enplegua egonkortu eta behin-behinekotasuna murrizteko aldarrikapenari erantzun bat ematea ahalbideratzen genuen.

Aurrez, ezkutuan CC.OO. eta UGTrekin negoziatzen ibili ondoren, atzo bertan jakin arazi zigun ofizialki Hezkuntza Sailak 2010-11 ikasturterako 1.515 lanpostu aterako dituztela EPera.

Urte askotan benetako Enplegu Publiko Eskaintzarik gabe egun ondoren, berri ona da albiste hau, baina salatu beharrean gaude hitzarturiko 1.500 lanpostu huts begetatiboak EPera ez atera eta amortizatzeke asmoa duela Eusko Jaurlaritzak. Horrek ikasturte honetarako eskainiko diren plazetan 500 lanpostu gutxiago egotea esan nahi du. Plazak murrizketa honetan guztiz salagarria gertatzen da CC.OO. eta UGTren babes eta konplizitatea, izan ere gutxiengoan sinaturiko hitzarmenean bertan uko egin baitzieten Mahai Orokorrean sinaturiko 500 lanpostu hauei.

Horretaz gainera, publiko egin dituzten datuetan tamalgarria deritzogu, oinarritzko mailetan gaitutua zirudien Hizkuntza Eskakizunean inguruko gatazka berriro ere piztu izana. Izan ere, eskaintzen diren lanpostuen artean Haur eta Lehen Hezkuntzako 42 lanpostu eskaintzen baitira 1go Hizkuntza Eskakizunarekin bakarrik eta Bigarren Hezkuntzan beste 11. Hauei Hizkuntza Eskola eta Kontserbatorioetako beste 32 plaza gehitu behar zaizkie, hauek ere 1go Hizkuntza Eskakizunarekin bakarrik, guztira 85 lanpostu euskararen ezagutza egokirik eskatzen ez dutenak.

Honek euskararen normalizazio bidean eta eskola euskalduntzeko prozesuan beste oztopo bat suposatzen du, euskalduntze dekretuak larriki urratzen eta argi uzten du Jaurlaritzak honek helburu horiek lortzeko duen borondate eskasa.

Bestelako irakurketa sakonago bat egin eta guztioi hel arazi bitartean, atzo bertan plazen zehaztasunen inguruan jakitera eman zizkiguten datuak eskaintzen dizkizuegu:

ADI! DATU HAUEK BEHIN-BEHINEKOAK DIRA!**ALDAKETAK EGON DAITEZKE DEIALDI OFIZIALA ARGITARATU ARTE!**

Badirudi Eusko Jaurlaritzaren asmoa deialdi ofiziala urtarrileko 2. astean egitea dela eta azterketak ekaina eta uztaila artean. Ofizialki jakin bezain pronto emango dizuegu ezagutzera.

MAISU-MAISTRAK

	1. Hiz. Eskakiz	2. Hiz. Eskakiz	GUZTIRA
Haur Hezkuntza		396	396
Lehen Hezkuntza	16	460	476
Ingelera	17	90	107
Gorputz Hez		57	57
Musika		44	44
PTE	8	84	92
Entzume / Mintza	1	13	14
Guztira	42	1.144	1.186

BIGARREN HEZKUNTZA

	1. Hiz. Eskakiz	2. Hiz. Eskakiz	GUZTIRA
Gaztelera	11	37	48
Filosofia		10	10
Geo eta Historia		45	45
Matematika		23	23
Biolo. eta Geologi.		25	25
Marrazketa		17	17
Ingelesa		28	28
Euskara		29	29
Guztira	11	214	225

HIZKUNTZA ESKOLA

	1. Hiz. Eskakiz	2. Hiz. Eskakiz	GUZTIRA
HEO Ingelesa	11	19	30
HEO Frantsesa	2	11	13
HEO Alemaniera	5	6	11
HEO Euskara		13	13
HEO Espainiera	7		7
GUZTIRA	25	49	74

KONTSERBATORIOKO IRAKASLEAK

	1. Hiz. Eskakiz	2. Hiz. Eskakiz	GUZTIRA
Akordeioia		1	1
Harpa	1	1	2
Kitarra	1		1
Kantua	1	1	2
Perkusioia		1	1
Pianoa	1	8	9
Musika-hizk. Len. musical	1	2	3
Konp. Oinarri / Fun. Comp.		3	3
Tronpeta		1	1
Orkestra	1	1	2
Bibolina violin		2	2
Fagota fagot		1	1
Zehar flauta / Flauta traves.		1	1
Tronpa	1		1
Guztira	7	23	30

Informatzen jarraituko dugu!